

Noaia!!



Inauterietarako
dena prest



Erriko jarduerak eta hitzak
liburu batean bildu ditu
Jabier Pikabeak

leap and egi



Eskaintza berria

- ✓ Depilazio iraunkorra
- ✓ Radiofrekuentziaren bidez gaztetze tratamentua

Zubiaurrenea 4, USURBIL ☎ 943 361 951



Lehiaketa

Film laburren emanaldia	Film laburren emanaldia
1xotx --- Sarale --- Hal 40 ezel --- Hauspo 50	1xotx --- Sarale --- Haragin 40 ezel --- Hauspo 50
MARTXOAK 9an 20:00etan Sute	MARTXOAK 9an 20:00etan Sute

Martxoaren 9an, film laburren proiektzioa antolatu du NOAUA!k. Euskal Herrian azken boladan egin diren film interesgarrienak ikus ahal izango dira Sutein.

Sarrera bat eskuratu nahi baduzu, e-mail bat bidali erredakzioa@noaia.com helbidera eta partehartzaile guztien artean lau sarrera bikoitz zozketatuko ditugu.

Bidali erantzuna e-mailez erredakzioa@noaia.com.
Postaz Borda Berri 3 Eguzkitza ldea
20170 USURBIL (Gipuzkoa).


+ OSASUN GIDA +

FARMAZIAK



ISIDORO ITURRALDE
Homeopatia
Formulación magistral
Borda Berri, 1 ☎ 943 36 55 55

ODONTOLOGIA




Odontologa
Dra. M^a Jesús Rubio Muñoz
Borda Berri, 1 - 1^a Et. USURBIL
☎ 943 36 18 55

MASAJISTAK



masaje lekua
Lepoko eta bizkarreko minak
Kirol eta oinetako masajea
K/ nagusia, 10-atzekaldea
☎ 659 043 486

LOGOPEDAK



LOGOPEDA-PEDAGOGA
Ulermen arazoak
Ahozkatzeko zailtasunak: Dislaliak, "rr"
Afoniak- Disfoniak, Dislexia, Disglasia...
Degluzio atipikoa.
Konsultaren orduei eskatzeko, deitu:
☎ 635 70 13 74

Badok Amairu !!

Iker Arriaga: "Bizitza erdia daramat barra atzean"

Iker Arriaga tabernaria da Irratin. Guztiok "Txuri" bezala ezagutzen dugu. Hamabost urte zituenetik da tabernari, eta jada hogeita hamar egitera doa; bizitza erdia, beraz, barra atzean.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.
Edozer, denetik jaten dut.

2. OHITURA TXARREN BAT.
Erretzea.

3. ZER GORDETZEN DUZU BETI
SAKELAN?
Telefono mugikorra.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?
Katu batean.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?
Guardia Zibilei.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.
Luis Mari Arkonada, atezaina.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...
Sukalderik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIARIK
HANDIENA.
Lanetik zuzenean elurretara joatea.

9. LIBURU BAT.
Libururik ez, TMEO aldizkaria.

10. FILM BAT.
"Trainspotting".



11. LEKU BAT.
Hernani.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.
San Esteban.

13. URTARO BAT.
Udazkena.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordinerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Tlf.: 943 36 03 21 / elkarte@noaua.com / www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Zaloa Arnaiz, Jakoba Errekondo, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Bazkietza: Aitziber Aranberri.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Zaloa Arnaiz, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

INAUTERI FESTA HEMEN DA **5. OR.**

JABIER PIKABEAREN LIBURU BERRIA **8. OR.**

"Errioko hiztegiak herio-bidea du denbora laburrera". Jabier Pikabearen hitzak dira. Hilaren 24an bere liburu berria aurkeztuko du Aginagan.



UHLREN PRENTSAURREKOA **11. OR.**

LANPOSTU BAT AURKITZEKO GILTZARRIAK **12. OR.**

MARTXOAN KULTUR EKITALDI UGARI **14. OR.**

Film laburren proiektio berri bat eskainiko du NOAUA!k martxoaren 9an. Otsailaren 17an, berriz, "Erreleboa" antzezlan ikus ahal izango dugu.



PUBLIERREPORTAJEA **18. OR.**



Usurbilgo Udalak



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak diruz
lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!

Zutabea !!



NEREA ZINKUNEGI

Begi bat itxi eta bestean eskua jarri

Zorionekoak gu, hilaren bukaeran gure kontu korronteko zenbakiak mahai azpian pegatutako txiklearen antzera luzatzen direlako.

Zorionekoak gu, urteak urte ez ditugulako, kurtsoak eta oporrak baizik.

Zorionekoak gu, herri txikitakook, usurbildarrok bereziki, Cadiz, Sevilla, Murtzia, Valentzia, Palentzia, Madril, Bartzelona, Benidorm, Ibiza, Bilbo, Iruñea, Berriozar edo beste askoren artean, Hondarribiko ikastetxeetan ematen diren bullying kasuak, eraso sexualak, mespretxuak, lapurretak, txikizioak, pintadak, katana erasoak, bideo-telefonoz grabatutako kirtenkeriak, trapitxeoak, gurasoen zaplastakoak, presioak, irainak, gurpil zulaketak, lotsagabekeriak, desautorizazioak, ikasle itsutuak, barkamen forztatuak, aurpegi luzeak, inpotentziak, "mala ostiyak", ezin ulertuak eta ulertu ezinak zer diren ez dakigulako.

Zorionekoak gu, guraso-seme-alaba-ikasle-tutore-irakasle-irakasle harremana Oria ibaiko ura bezain gardena, freskoa eta naturala delako. Zorioneko armonia gurea.

Zorionekoak gu, hezkuntza-ikaskuntza-irakaskuntza prozesua behar bezala gauzatu ahal izateko ahalegin berezia egin beharrik ez dugulako.

Zorionekoak gu, gurean behar berezirik ez dugulako

eta izatekotan ere beharrezko medio guztiak eskura ditugulako.

Zorionekoak gu, ostiralean bezain gustura astelehenean lanera gatozelako, gogoz, ilusioz, kementsu.

Zorioneko zorionari buruz idaztea behin baino gehiagotan izan dut buruan, baina ezin asmatu. Orain bai, puri-purian dugun honetan animatu egin naiz, hara!

Esku artean dut Euskal Herriko ikastetxe gehienetan darabilkigun txostena eta, ez nituzke gai ezberdinak nahasi nahi, baina derrigorrezko eskolaldirako aztertzen ari garen Euskal Curriculumak honela dio behin eta berriz: "Beraz, hezkuntzaren funtzioa ez da bakarrik hezkuntza eta kultura transmitituz gizarteratzea; horrez gain, beste funtzio batzuk ere baditu: bizitzako eremu guztietarako prestatzea (familia, gizartea, lana...), ikasten ikasteko konpetentzia garatzea, gure giza izaera zein den ulertzea, pentsamendu kritikoa bultzatzea, sormen gaitasunak garatzea, gure ekintzen erantzule izaten laguntzea... Hezkuntzaren funtzio horiek eta beste batzuk ezin dira bata bestearengandik bereiztuta ulertu, hezkuntza prozesuaren baitan baizik."

Itxitako begia ireki eta bestetik eskua kendu; hezkuntza, bere osotasunean ezin da eskolan soilik burutu.

Ainhua Azpiroz - Aitor Landaluze - Jakoba Errekondo - Luis Aranalde - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Jose Piñas - Aritz Gorriti

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170

USURBIL

GORRITI
edaritegia

kafe berezia!

SAN ESTEBAN KALEA, 8 943 362 770

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Zendoia

Kale Nagusia 35 - 943 37 40 71

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea, 7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Mozorro festa hemen da

Inauteri garaian gaude. Mozorro-
tzeko ordua da. Baina nondik
dator joera hori? Erantzun argirik
ez dago, ordea. Hala ere, Inauterien
inguruko hainbat datu bildu nahi izan
ditugu.

Leku askotan, Inauteria, mozzorro festa
soil batean bihurtu da. Baina manifesta-
zio folkloriko honek bere baitan kristau-
tasunaren aurreko eta paganismoaren
sasoiko indar berezi bat gordetzen du, jai
honi bestelako zentzu bat ematen dion
magia bat, eta oraindik herri askok era
berezian agerian uzten dutena, hala dio
Fernando Rojo Inauterien ikertzaile tolo-
sarrak.

Soziologikoki, gizabanakook gizartean
ditugun jokabideak bistan jartzen ditugu
egunotan; eta molde edo eredu asko
zalantzan jartzen dira. Fernando Rojo
ikertzaileak dioenez, "hein berean,
Inauteriak eskaintzen duten aukera ezin
hobea da eguneroko bizitzaren kritika
parregarri eta egoera sozial zein politiko-
aren parodiak egiteko, salaketa zorrotzak
modu publiko batean agertzeko, inoren
eta inongo beldurrik gabe". Dena den,
historialari tolosar honen arabera, "ezau-
garri hauek ez dira Inauterien eskusiba,
neurri txikiago batean bada ere, bestelako
festetan ere ikus daitezke".



Inauterietako hitzorduak

Otsailak 24, ostirala

Udarregi ikastolan

10:00etan, Agerialdetik kalejiran
irtengo dira ikasleak.

11:30ean, kiroldegian, ikasleen
emanaldia.

Otsailak 25, larunbata

Goizez, haurrak nagusi

11:00etan frontoian, umeentza-

ko jokoak eta tailerrak. Sorpresak
ere izango dira. Arratsaldean, kale-
jira.

18:30ean, frontoian, koadrilen
elkartzea. Kalejiraren hasiera, herri-
ko trikitilariak girotuta.

21:00etan sagardotegian afaria.
Ondoren, parranda mundiala.
Izena ematea, ohiko tokietan,
otsailaren 18a baino lehen.

Neupsiudegia eta Solarium-a
Loli Lizarralde
Estetika Zentroa Nerche Caseresen eskutik.
☎ 943 361 971
Zubiaurrenea, 5 B



BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

JOSETXO IKATZETA
Iturgintza
TEL: 943 36 20 26
687 95 12 25



LATAILLADE
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK
Ariztitxo 8. behea · 943 363 348 · 609 888 021

txirriStra
KONTSEJU ZAHARRA 13
943 300 400
pintxoak
ogitartekoak
ptatet konbinatuak
TABERNA



TXOKOALDE

IÑAKI LABAKA

Istripuak eta heriotza



Berriola erregulatzailentzako eta makina-erremintarentzako motore elektrikoak egiten dituen lantegia da. Langile mordo batek egiten du lan bertan eta azken urteotan nabarmentzekoa da tartean gazte berri asko ari dela. Beteranoenak eta herrikoak, tartean auzoko elkartean ere bazkide eginak daude batzuk, ezagutzen ditugu. Baina beste multzo handi bat ezezagun egiten zaigu. Bazkaltzera eta etxerantz irtezen direnean ikusten ditugu gehien. Lanera etortzeko denak kotxea erabiltzen dute, eta ez da erabat harritzekoa, bidaiarentzat herri-garraioarekin daukagun egoera ikusirik; trena ez da gelditzen eta autobusak eskeintzen digun zerbitzua berriz hala nolakoa. Ondorioz, auzokideak ohituta gaude ikusten, goiz goizetik nola txokoko bazter guztiak okupatzen dituzten bere kotxeekin. Hala ere bertakoek ez dugu normalean arazo larririk izaten kotxea aparkatzeko...

Pasa den ostegunean, goizeko zortziretarako lanera zetorrela, istripu larri batean 20 urteko zarautzarra hil zen Orioko gainean. Beste lagun batekin zetorren Zarautztik lanera eta beste hirugarren bat Orion jasotzekoak ziren. Bidean beste auto batekin jo zuten eta autoa gidatzen zuen gaztea zoritxarez hilik gertatu zen. Berri txarrak segituan zabaltzen direnez, Berriolan laister jakin zuten istripuko heriotzaren berri. Jakin bezain pronto lankideek, minduta, laguna gogoan, lana uztea erabaki zuten eta poliki-poliki etxerako bidea hartu zuten. Eguerdirako lantokia itxia zegoen auzokideen artean harridura sortuaz, arrazoiak ezagutu zuten arte, noski. Ez baita egoera arrunta txokora sartu aste eguna izan da, eta kotxea uzteko tokiak asteburu eta opor egoeran bezala aurkitzea, denak libre alegia.

KALEBERRI

IÑAKI AGIRRESAROBÉ

Akulturizazioa



Irakaskuntzan metodologia berritzaileen aitzindari, eleaniztasunaren egitasmoaren sortzaileetakoa, kulturaren transmisioarako eredugarri izan dena eta guraso askoren izerdiz osaturiko erakundea izan da ikastola. Hori gutxi ez, eta oraingoan akulturizazioa sortzen duela ondorioztatu du epaitegi batek.

Ingelesa lau urterekin irakasten den lehenetarikoa izan da ikastola, bere metodologia propioa eratu duena, jolas eta ipuinen bidez osaturikoa eta era goxoan txertatzen dena. Metodologia honengatik hezkuntza mailan hainbat sari sonatu eskuratu ditu.

Elebitasuna aldarrikatzen den honetan, ikasle eleanitza sortzeko gai dela erakutsi du ikastolak bere ibilbidean. Hizkuntzen aberastasuna beti goretsi du euskararen ezagutzatik hasirik, noski. Hegoaldean euskara, gaztelania eta ingeles maila txukun batekin irititzen diren bezala, ipar Euskal Herrian euskara, frantsesa eta ingelesa mailarekin iritetzen dira. Beraz, heziketa hau akulturizazioa baldin bada hiztegitik ezabatuko beharko da bere esanahia.

Beraz, hizkuntzari garrantzia eman nahi baldin badiogu, bihotzarekin baino gehiago mingainarekin ipini beharko da dantzan.

KALEZAR

MAIDER MAKAZAGA

Berdintasuna denen nahia

Bai, izenburuak dioena egia borobila da, goikaldeetan bizi garenak ezberdinak gara gauza askorengatik! Eta kontatu egingo dizuet zergatik esaten dudana esaten dudana.

Ezberdinak gara goikaldean bizi garenak Usurbilgo herria bere osotasunean, eta argazki bat bailitzan, etxeko leihoren batetik begirada bakar batez ikusi dezakegulako. Ezberdinak gara ere, Usurbilgo herriarena ez ezik, bista zoragarriak ditugulako aurrez aurre. Ezberdinak gara, gasa gurera ez delako hodi barruan iristen baizik eta bi asteen behin orro batean etortzen den kamioi baten barruko "bonbonatxo" naranja horietan. Ezberdinak ere, Internetera konexio azkarxeago bat nahi izan ezker (ADSL, RDSI edo horrela zeozer), geuk egin behar ditugulako aurrez egin beharreko instalazio guztiak (Telefonikarentzat lanean, boluntarioki, kar, kar). Argi kontuetan ere ezberdinak gara, gauzez oinez ibili nahi duenak ilargiaren argipean ez bada, linterna eraman beharko duelako. Ezberdinak ere, lantegietako kea eta usainen orde, baserrietako usaina eta aberen oihuak entzuten ditugulako. Eta bai, ezberdinak gara ere, herriko autoen eta jendearen zarataren orde, isiltasuna nagusi delako goikaldean.

Halere, badugu berdintasunik! Gasa, berdin-berdin; telefonoa eta konexioak ere, berdin-berdin ordaintzen ditugu. Udaleko zergak ere ordaintzea tokatzen zaigu, beste edozein herritarren antzera.

Amaitzeko, badakit leku ederretan bizi garelako eta ez naiz kexu eta ez nuke aldatuko. Eta, honekin ez dut esan nahi zergak eta gainontzekoak ordaindu behar ez genituzkeenik baina, eskertuko genuke berdintasun gehixeago izatea, hainbat gauzetan, bederen.



ATXEGALDE

AINARA ARNAIZ

Badatoz Inauteriak!

Aurten ere Inauteriak ate joka dauzkagu. Lanerako gogo duenak etxeko arropa guztiak miatu eta mozorro polit bat egiten ibiliko da. Beste askok dirua poltsikoan erositakoa jantziko dute. Modu batean edo bestean garrantzitsuena ohitura zaharrak mantendu eta herriari egun hauetan ez ohikoa den bizitasuna ematea da.

Urtero legez, Atxegaldeko kaleetan Udarregi ikastolara bidean haur mordoa ikusiko dugu era guztietako mozorroak jantzita. Goizean gazteenek eskainiko digute aurreko asteetan prestatutako emanaldia eta arratsaldean Usurbilen tradizioa bilakatu den eta ia gazte guztiok egin dugun "festa" egongo da. Udarregi ikastolako ikasle ohi guztiok daukagu gogoan lagunekin prestatzen genituen dantza, antzerki edo "skech" dibertigarri haiek. Eta nola ez, ondoren egiten den dantzaldia.

Ondo pasa Inauteri hauetan eta dudarik gabe mozorrotu zaitezte, lotsa guztiak etxean utzita!



SANTUENEA

AGUSTIN ESNAOLA

Auzoaren izpiritu positiboa



Santuenea auzoak ez du fama onik eduki bere historian. Badira urte batzuk, auzoari ezagutzen nizkion ezizenei buruz idatzi nuela. Ezizen haiek ez ziren bere fama onarengatik, ez, bere fama txarrengatik baizik. Batzuk gogoratuko dituzue: *Barrio Chino, Hollywood, Chinatown, Margen Izquierda*,... eta nik ezagutzen ez ditudan beste batzuko ere. Hauek garai bati lotuta dauden ezizenak direla uste dut.

Auzoa "ghetto" bat izatetik auzo ireki bat izatera pasa da. Baina, gauza bat ez da aldatu urte hauetan guztietan, auzoaren izpiritua. Hau ez da batere aldatu, agian ireki eta zabaltu egin da, beste auzotar batzuk etorri direlako, bai herri bertakoak edo beste herrietakoak.

Auzoaren izpiritua esaten dudanean, auzotarren lankidetzaz, ezagutzaz, laguntasunaz, eta beste balore batzuetaz hitz egiten ari naiz. Ikusi besterik ez dago, udaletxearen laguntzarekin, baina auzoko emakume batzuen ekimenez, lehen eskubaloi kluba zen lokaletan ireki den auzoko zentro zibiko txikia. Orain dela gutxi emakume heldu batek esaten zidan; "yoga egitetik nator eta guztiz berrituta nator". Auzoaren izpiritua hau da, auzotar batzuek antolatzen dituzten ekintzetan parte hartzea eta elkarrekin topatzeko bideak egitea.

URDAIAGA

ALAZNE BEGIRISTAIN

Inauteriak eta Aste Santua



Dagoeneko gainean ditugu Inauteriak. Aurten "marrazki bizidunak" omen dugu herriko gaia eta ikusi egin behar nola mozturatu edo nola moldatu.

Urtea hasi eta bi hilabete pasa dira konturatzerako eta gainera data ezberdinen zain egoten garenez, segituan pasatzen zaigu urtea eta kexatu egiten gara gainera.

Oraingoan Aste Santuko oporrei begira nago ni behintzat. Aurten berandu egokitzen zaizkigu.

Hauxe bera komentatu nuen lehengoan bazkari batean, berandu egokitzen zirela alegia. Bazkarian 84 urteko beasaindar bat zegoen eta halaxe galdetu zidan: "Ba al dakizu zergatik egokitzen den honela?". Nire erantzuna ezezkoa. Ilargiarekin omen du lotura honek. Udaberrian sartu eta lehenengo egokitzen den ilargi betearen ondorengo igandea omen da Pazko Eguna. Aurten udaberriko lehen ilargi bete apirilaren 13an dugula uste dut eta hemen, Aste Santua hain "berandu" izatearen arrazoia.

Zuetako batzuk jakingo zenuten hau horrela zela eta ni bezala ideiarik ez zenutenentzat, hemen gauza berri bat.

Egunero ikasten omen da zerbait...

AGINAGA

LARRAITZ AGIRRE

Gauzak aldatzen ari dira



Agiña beti izan da leku lasaia. Ni haurra nintzeanean etxe guztietako ateak irekiak egoten ziren, baita portalak ere. Gauze ez zen entzuten atea giltzatzean ateratzen duen hotsik eta, konfiantzaren arabera noski, auzokoaren etxean besterik gabe sar zintezkeen. Amonak "Ave Maria Purísima" esan eta aurrera, haurrok berriz sukalderaino ezer esan gabe... Gaur egun, ordea, gauzak asko aldatu dira. Orain auzokoaren izena jakiten ere nahikoa lan daukagu eta hori gutxi balitz, badirudi azken aste hauetan Agiñarekin txundituta dabilela norbait.

Dendara erosketak egitera jaitsi eta aspaldi honetan ez da beste ezer entzuten: lapurrak sartu dira beste etxe batean. Dagoeneko lapurreta dezente izan dira etxe ezberdinetan eta badirudi honek luzerako joko duela. Bestalde, telefono deiak jasotzen ari gara etxe askotan, identitate ezezaguneko deiak eta bestaldean inoren erantzunik jaso gabe, hauek jendea oraindik eta gehiago urduritzen dute, nahiz eta ez jakin zerikusirik ba ote duen ala ez lapurretekin. Ez gaude lasai gure etxeetan, eta sekula ez genituen ohiturak hartzea behartuak izan gara, azkena etxera iristean atea giltzatzearena esaterako. Gauza jakina da bizimodua aldatzen ari dela leku guztietan, eta horrelako gauzek herririk txikiena ere aztoratu egiten dute. Pena da kronika idazten dudan lehen aldi honetan honelako gertakariei buruz hitz egin beharra, baina argi dago lehen oso urrun ikusten genituen gauzak geroz eta gertuago daudela barneratu beharrean gaudela.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Harmailak

Harmailaren definizioaren bila Harluxet Entziklopediara joan eta "harrizko maila edo jarleku-modukoa" aurkitu dut. Gaur egun harria garesti xamar nonbait eta, Zubietako frontoiairen ezaugarriak buruan, definizio hori aldatu egin beharko genuke: "zementuzko maila edo jarleku-hala-moduzkoa".



Negu gorri honetan Zubietako frontoiko harmailek ipurmasail ugari hoztu ondoren eta, Herri Batzarrak hala eskatuta, Usurbilgo Udalak jarri dizkigu egurrezko taulak alderik alde; eskerrik asko.

Zubieta hobetzeko lanei bide emanez gero, Usurbilgo Udalak beti izango du bidelagun gure Herri Batzarra. Baina ez erdibidean geratzeko. Izan ere, egurrezko taulek ez daukate bernizik eta hasi dira jada umeen gonbitoak, parrandazaleen pixa-parrastadak eta bestelako zikinkeria xurgatzen. Merkexegoak izango ziren bernizik gabeko taula horiek baina garesti aterako zaigu orain taula guztiak kendu, aroztegira eraman, bernizatu eta bueltan frontoira ekartzea.

Lehenengo lardaskeria balitz, tira, barkatzeko modukoa. Baina zenbat bider jasan behar ote ditugu horrelakoak Zubietan? Ez al da garaia bidegabekeria horiei bidea ixteko eta behingoz Herri Batzarrari Zubieta kudeatzeko duen eskubidea aitortzeko?

Herri bideak identifikatzeko proiektua izan daiteke bide berri horri ekiteko abiapuntua.

“Errioko hiztegiak herio-bidea du denbora laburrera”

Aginagako jarduerekin eta hitzekin liburu interesgarria osatu du Jabier Pikabeak

Aginagako historia erriok busti du eta bertako hizkera, aginagatarren izaeraren ispi-lu, errio-kulturak gozotu. Baina errioko hiztegia galtzeko zorian dagoela esan digu Jabier Pikabeak, eta hau gerta ez dadin idatzi duela liburu berria: “Aginaga, Errioko jarduerak eta bertako hiztegia” (Eusko Ikaskuntza-Usurbilgo Udala). Otsailaren 24an aurkeztuko du liburua Aginagako Apaiz Etxean eta hara joan aurretik liburuaren nondik norakoak azaldu dizkigu.

NOAUA! Zertan oinarritzen da liburu berri hau?

Jabier Pikabea. Aginagako erriolari buruzko liburu da. Han bertan jarduerak izan dira eta gainera Aginagako hiztegiak ikaragarritzko aberastasuna dauka, eta hori buruz aritu naiz idazten. Hiru zatitan banatzen da liburua: jarduerak, hiztegia eta esamoldeak. Jarduerak izenekoan aingireta, alagintza, anguleta, estropadak, gobadahariak, izkireta, hondarreta eta ujalak atalak ditu. Atal bakoitzean errioko jarduera berezi hauen gorabeherak kontatzen dira. Errioko hiztegia oso aberatsa da, esan bezala, eta bertan hiztegiak gain leku izenak, arrainenak, zuhaixka eta landareenak agertzen dira.

JABIER PIKABEA

“Gaurko gazteak ez dio erriolari hitz egiten eta bere bizimodua oso bestelakoa da”

N. Zer dela eta idatzi duzu liburua?

J. P. Aginagako errioko hiztegia gutxitzen da aberatsa, eta altxor preziatua; menderik mende, ahoz aho eta eskutik eskura bezala transmisioz jasotako hitz jator eta esapide argi eta egokiak ditu. Eta hiztegi hau denbora laburrera galtzera dateke: hemendik hogeita hamar



AHOZ AHO JASOTAKO HITZ ETA ESAPIDEAK BILDU DITU PIKABEAK.

urtera, luze jota, galtzera dateke. Horregatik egin dut liburu hau; errioko hiztegiaren bilduma egin dut sekula gail ez dadin.

Aginagako jendea erriotik bizi zen garaiko pasarteak

N. Hiztegi hori galtzeko arriskua ikusten duzu hortaz.

J. P. Bai, eta berehalakoan gainera. Bazen garai bat Aginagako jendea erriotik bizi izan zena, errioa bizi izan zuena eta goizetik gaueraino erriolari hitz egiten ziona. Gaurko gazteak, berrogei urtetik beherakoak esango nuke nik, ez dio erriolari hitz egiten eta bere bizimodua oso bestelakoa da: diru-sarrerak beste tokietatik lortzen ditu eta ez du errio-premiarik bere bizitza aurrera ateratzeko. Errioa ahaztua dauka, eta errio-hizkuntza, zaharrekin alderatuta, erdia baino gehiagora jaitsia dauka dagoeneko. Bizitzen ez dena galdu egin ohi da, eta Aginagako errioko hiztegiak herio-bidea du denbora laburrera.

N. Joxe Mari Aranalde *Gazteluk* ere

hitz batzuk idatzi zizkizun. Zergatik aukeratu zenuen bera?

J. P. Duela zortzi urte edo hasi nintzen liburu hau egiten. Grabaketak egin nituen errioko gizonekin eta handik hirurehun bat hitz jaso nituen. Hitz horiek apur bat apaindu eta Joxe Mari Aranalderi eman nizkion aholku eske, eta berak esan zidan: “Jabier, liburu hau egin egin behar duk, eta nik neronek lagunduko diat”. Gero bera izan zen Eusko Ikaskuntzaren bideak erakutsi zizkidanak, nola idatzi, nola egin... Zoritzarrez Joxe Mari Aranalde hil egin zen; nik badakit hilaren 24an, aurkezpene egunean, Joxe Mari han egongo zela bestela, gurekin mahaian eserita. Berari nolabait eskerrak emateko eta berari ohore egiteko poesia bat idatzi nuen, NOAUA!n argitaratu nuena, eta liburuan ere argitaratu dut bere ohorez.

Ikaragarritzko lana

N. Elkarrizketa erabili duzu edukiak antolatzeko. Elkarrizketatuen hitzak Aginagako hizkeran transkribatu dituzu gainera.

J. P. Jendeak esaten zidan batuan egiteko. Baina bi gauza nabarmendu nahi nituen nik: alde batetik jarduerak, hau da, herria nola bizi zen, nolakoa zen... Baina garrantzitsu ikusten nuen baita ere, Aginagan gaurko garai hauetan nola hitz egiten den azaltzea. Horrexegatik egin nuen batez ere. Eta ikaragarritzko lana du, asko kostatu zait. Batzuk zuzenean esandakoak idatziz jasoz egin ditut, baina beste elkarrizketa batzuk grabatu egin ditut eta gero hitzez hitz transkribatu. Horregatik egin dut horrela, bai, gaur eta bihar jakin dezaten Aginagako azpi-euskalkia nolakoa den. Izan ere, Aginagan eta Usurbilen antzeko hitz egiten da, ñabardura batzuk kenduta, baina hori bai, lehorreko hizkeran. Aginagak badu, ordea, beste hizkera bat, Usurbilek ez duena: errio hizkera. Usurbildarrek aginagatarrek bezala ez dutelako bizi errio, edo ez dutelako bizi izan.

Aginagatarrentzat egina

N. Norentzat idatzi duzu liburua?

J. P. Irakurri nahi duenarentzat! Beno, aginagatarrentzat behintzat egina dago. Edonorentzat da baliagarria, gauza asko ikas baitaitezke bertatik. Baina batez ere aginagatarrentzat dago egina, Aginagako historia eta hiztegia jaso nahi nuelako.




AGINAGAKO PAISAIK ETA
HERRITARRAK AGERI DIRA LIBURUAN.

Liburuaren aurkezpena, Aginagako Apaiz Etxean

Aginagan jasotako kontu, esamolde eta hitzekin osatu du liburua Jabier Pikabeak. Erriotik bizi zen herri bat deskribatzen du. Baina asko aldatu da Aginagako bizimodua. Oria ibaiari bizkar emanaz bizi gara orain. Horregatik, berandu baino lehen, ahoz aho ibili diren esamoldeak eta hitzak bildu ditu. Lan horri esker, belaunaldi berriek errioko jardueren berri izango dute; errioko hizkuntzaren berri. "Errioko jarduerak eta bertako hiztegia" liburua Aginagan bertan aurkeztua izango da, Apaiz Etxeko aretoan, arratsaldeko 19:00etan.

Aurkezpenaren ondoren, afaria egingo da soziedadean (aldez aurretik izena eman behar da Eiza dendan, otsailaren 22a baino lehen).



Galzorian dauden esapideen bilduma

Aginagako hitz eta esamolde aberesiak agertzen dira liburuan, errioko bizitzaren inguruan sortutakoak guztiak. Galzorian dauden esapideak, batez ere erriorearen baitan erabiltzen direnak eta jende helduak barra-barra baina gazteek gero eta gutxiago erabiltzen dituztenak aurki daitezke.

Atxurra kin baño geyo izan urakin (lurlantzan baino gehiago izan arrantzan): ok atxurra kin baño geyo nok ni urakin.

Begik belarrin dittuela (belarritik ikusiko bailuten, erne betean): erriyuan, zubigain batian pasatzekuan, iriparia alkarri bultzaka, begik belarrin dittuela, larri-larri inda.

Bildurra airian (beldurra hartuta, jota): estroposoka niek bildurra airian.

Errañuba (islada): aidian dijuan abioya o eaztiya earki ikuste'k ureko errañuban bidez.

Eztittuzu billatuko bi (gabe gertatuko zara): txikapala earra baldi

ma'a, eaman etxea zeorrek; beste la, urruna eztittuzu billatuko bi.

Galtzak askatzeko larriya etorri (kakagalea etorri): ta etorri zayo galtzak askatzeko larriya.

Orri esate zayok esan (hori da hitz egitea behar bezala): eta ondo itz ein tzin; orri esate zayok esan, orri esate zayok itz!

Urak aundiya uk izengo'ttuan emen baño (euri gehiago egingo zian hemen baino): erriyua ola datorreneako, goyen urak aundiya uk izengo'ttuan emen baño.

Urausiya (habaila, abiadura): oain alak "fuerabordakin" ibiltze'ttue batea ta bestea, eta bi aldetik olatuba utziz dijuanian, esate'zu: "Oi dek urausiya damakiña" Ezta esaten "martxa".

Zanga-zanga (hurrupatzearen onomatopeia): zanga-zanga ta zupa-zupa ai zitzayon zañetik.

Zerrazuya oso itxu (behe-laino edo lainopera oso trinkoa, itxia): alian zuazenian, ikuste'tzala zerrazuya oso itxu jartze ba'a.

36 lagun elkartu ziren
Jai Batzordearen lehen bileran

Otsailaren 15ean Santixabeletako Jai Batzordearen lehen bilera egin zen udalbatza plenoan. 36 lagun elkartziren bertan. Hurrengo Jai Batzordea martxoaren 15ean egingo da, hau ere udalbatza plenoan, ilunabarreko 19:30ean.

Gazteei deialdi berezia

Honen harira, Santixabeletako gazte eta koadrila giroa berreraiki nahi du lagun talde batek. Jaietan gazteentzat ekintza gehiago egon behar dutela uste duten horiek animatu eta erakarri nahi dituzte. **Bilera martxoaren 3an** egingo da, ostirala, arratsaldeko **20:00etan Txaramuntoko lokaletan.**



JAI BATZORDEAREN BIGARREN
BILERA, MARTXOAREN 15EAN.

Martxoan KzGunea, arratsaldez

KzGuneak Interneten nabigatzen ikasteko aukera ugari eskaintzen ditu. Oso modu errazean, doan, eta etxetik hurbil. Martxoan, KzGunea arratsaldez irekita izango da astelehenetik ostiralera. Orduetgia: 16:00etatik 20:00etara.

Martxoak 6/ martxoak 17
Astelehenetik ostiralera, 16:00-18:00.
Internet ikastaroa. Iraupena: 20 ordu.

Martxoak 6/ martxoak 10
Ile-apainketa eta edergintzako ikasleentzat
ikastaro berezia. Ordutegia: 18:00-20:00.
Iraupena: 10 ordu.

Udarregi ikastolako mendi-taldea, Lezora

Udarregi ikastolako mendi-taldeak irteera berri bat antolatu du. Honakoan, Lezo izango da mendizale hauen helmuga. Hauxe izango da martxoaren 5ean osatuko duten ibilbidea: Usurbildik Pasai Donibanera kotxez, Lezora mendiz eta buelta autobusez Pasaiaara. Handik Usurbila kotxez.

Euskal dantza ikastaroa Zubietan

Euskal dantza ikastaroa antolatzen duen bilera deia egin da Zubieta. Hitzordua, otsailaren 24an ostirala, arratsaldeko 19:30ean, Zubieta Eskola Txikian.

Aromaterapia ikastaroa

Martxoaren 7an, 20:00etan, Maromaterapia tailerra egingo da Etumeta AEK euskaltegian. Parte hartu nahi duenak aurretik izena eman behar du: martxoaren 3a baino lehen, 943 372 001 telefono zenbakira deituz. Tailer hau euskara hutsez egingo da.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

ANTXETA
taberna-jatetxea

agitaratekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

[illegible]

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

I lts r tz

I lts r tz

Mugikorra: 649435475
649435476
943 363370- 361439

Burdingurutzeta, Murgileneia eta Urdaiagako hondakindegiko “irregulartasunak” salatu ditu UHLk

Angulas y Mariscos Boulevard SA enpresa Aginagako Burdingurutzeta inguruan egiten ari den betelana aspalditik arrisku handia eragiten ari dela dio UHLk. Bertan lanean diharduten langileentzat, ingurutik igarotzen den edonorentzat eta, batez ere, malda azpian kokaturik dagoen Mapil baserriko biztanleentzat. Gainera, inguru horretan dagoen erreka eta hariztegi ederra ere hondatzeko arriskuan daude. Hori salatzeke UHL hautes plataformak prentsaurrekoa eskaini zuen otsailaren 17an. Murgileneia eta Urdaiagako hondakindegiko “irregulartasunen” berri ere eman zuten.

Angulas y Mariscos Boulevard SArekin kontra espediente zigortzailea irekitzea eskatu du UHLk. Baimenik gabeko

lanak egiteagatik eta auzoko biztanleekiko, ingurumenarekiko, udalarekiko eta, oro har, herriarekiko izan duen errespeturik gabeko jarreragatik.

Eskatutako lanetarako, bidea edo betelana izan, baimenik ez emateko eskaera egin du UHLk. Hala nola, egindako betelana deuseztatzea eta eragin dituen kalteak konpontzera behartzea, lurzorua lehen zegoen moduan uzteko.

Hori egin ondoren, lurzoruan onura aterako balu, onura horiek baloratu eta inkautatzea.

Era berean, lurzorua goialdean jarri duen itsasontziaren kabina kenduaraztea ingurune-inpaktu izugarria eragiten duelako eta landalurretan kokatutako eraikinen arautegia betetzen ez duelako.

Aurreko puntuan aipatutakoa subsidiarioki udalak egitea gerta daitekeelako-



UHLKO KIDEAK BURDINGURUTZETAN.

an, lanok egiteko behar den dirua enpresari berari aurrez enbargatzea eskatu du Arantxa Manterolak, UHLko kideak.

IMANOL UBEDA

Murgileneako ustiapenean, irregulartasun ugari

Luis Sukia Muruak 2002ko urrian Murgileneako lurretan nekazal ustiapena ezartzeko asmoa azaldu zuen. Baina irregulartasun ugari eman dela dio UHLk. Otsailaren 16an, idatzi baten bidez zera eskatu zion UHLk alkatezari.

- Luis Sukia Muruaren kontra espediente zigortzailea irekitzea baimenik gabeko lanak eta jarduera burutzeagatik eta ingurumenarekiko, udalarekiko eta, oro har, herriarekiko izan duen errespeturik gabeko jarreragatik.

- Legezatu gabeko ustiapena berehala bertan behera uztera behartzea, horretarako animaliak kendu araziz.

- Lur eremu horretan herribidea zegoen egiaztatzea eta, hala balitz, berreskuratzeko neurriak hartzea.

- Behar diren baldintzak eta eskatutako neurri guzti-guz-

tiak bete arte ustiapena irekitzeko baimenik ez ematea. Hori egiteko eta lanek darabaten urteak ikusita, epe laburra finkatu (sei hilabete, gehienez) obra amaitzeko eta kaltetutako eremua eta gorritutako lurak bere onera ekartzeko. Gainera, ustiapenak duen inpaktua ikusita, hasierako egitasmoari atxikitzea eta jarduera handituko lukeenik inolaz ere ez baimentzea.

- Epe horretan obrak amaituko ez balitu, ustiapen baimena behin betiko kentzea, kaltetutako lur-eremua aurreko egoeran uztera behartuz.

- Sukia jaunak erakutsi duen errespetu gabeko jarreraren aurrean, aurreko puntuan aipatutakoa subsidiarioki udalak egitea gerta daitekeelakoan, lanok egiteko behar den dirua Sukia jaunari aurrez enbargatzea eskatu berri du UHLk.

Urdaiagako hondakindegia behin betiko itxiera

Iaz, Urdaiagako hondakindegia erabiltzeko eskaera egin zuen Ingemar SAK. UHLk, urriaren 6an, lohien ezaugarriak aztertu eta kontrolatzeko eskaera egin zuen.

Hala nola, behin betiko itxi arazteko eskaera egin zuen. Udalaren erantzunik ez dutela jaso dio UHLk. Zentzu honetan, eskaera hau egin dio udalari: “Urdaiagako hondakindegian, Ingemar baimenik gabe egiten ari den betelana berehala geldiaraztea”.

Honekin batera, iritsi diren lohien eta materialen azterketa egitea. Gai arriskutsuak dauzkatela agerian geratzen bada, beharrezko neurriak hartzea kutsadura deuseztatzeke, guztia Ingemarren gain.

Bide batez, Ingemar SARI espediente zigortzailea irekitzea, baimenik gabeko lanak

eta jarduera egiteagatik eta ingurumenarekiko, udalarekiko eta, oro har, herriarekiko izan duen errespeturik gabeko jarreragatik.

Ingemarri hondakindegia behin betiko itxiera egitea behartzea eskatu dio UHLk udalari. Horretarako legeak agintzen dituen baldintza (aseguruak, fidantzak, bermeak, tasak, lur zorua kalitatearen azterketa...) eta neurri zuzentzaile guztiak bete ondoren (kutsatutako lurra garbitzea, kaltetutako inguruak berregokitzea...).

-Ingemar SAK erakutsi duen errespetu gabeko jarreraren aurrean eta 30/1992 legearen 98.4 artikulua diotari eutsita, aurreko puntuan aipatutakoa subsidiarioki udalak egitea gerta daitekeelakoan, lanok egiteko behar den dirua Ingemarri aurrez enbargatzea.

Lanpostu bat aurkitzeko giltzarriak

Herritik atera gabe, udaletxean bertan bada Enplegu Bulegoa martxan

Ez da erraza lanpostu bat aurkitzea. Are zailagoa, norbere ikasketekin edota lehentasunekin lotutako lan bat eskuratzea. Lan bila al zabiltza? Hurrengo lerrootan argibide batzuk emango dizkizugu.

Langabezian edo lan mundura sartze-ar, askotan nora jo edota zer egin jakin gabe gabilta. Gure herrian bertan, Udalak Enplegu Bulegoa du martxan. Prestakuntza eta kontratazioa kudeatu eta bultzatzen dute bulego horretan. Bertako arduradun Josune Mujikak zehaztu digu zein den langabetu batek edota lan bila dabilen edonork lana bilatzeko duen lehen zeregina: "Enplegu Zerbitzu Publikoetan izena eman eta bertan informazioa eskatzea". Hain zuzen, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bi dira, alor horretako zerbitzuak kudeatzen dituzten erakundeak: INEM eta Egailan.

Prestakuntza eta orientabidea

INEM, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa da. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean dira, lan bitartekaritza zerbitzua, kontratuak, enplegu tailerrak edota prestazioak.

Lanerako prestakuntza eta orientabidea zentro laguntzaile desberdinen bidez gauzatzen dute. Eskualde mailako bulegoak ditu eta Usurbildik gertuen duzuen bulegoa Lasarte-Orian dago.

Egailan SA, aldiz, Eusko Jaurlaritzaren sozietate publikoa da. Laneko bitartekaritza zerbitzua kudea-

tu eta garatzea, EAEn prestakuntzaren eta enpleguaren arloan gauzatutako jarduerak ebaluatu eta jarraitzea edota lan merkatua aztertzea dira dituen zereginetako batzuk.

Horren barne dago baita Lanbide, Eusko Jaurlaritzak langabetuen esku jarritako enplegu zerbitzua. Lana bilatzeko prozesuan laguntza eskaintzen du. Lanbidek zentro laguntzaileen bidez gauzatzen ditu bere zerbitzuak eta gune horiek herri gehienetan daude. Tartean, arestian aipatu bezala, Usurbilgo udaletxean.

Gainera, batzuk orientabide guneak

ENPLEGU BULEGOAK

"Prestakuntza eta auto-enpleguari buruzko informazioa ere eskaintzen da"

dira: lan merkatuari buruzko informazioa eskaini, lan-munduratzeko lortzeko bidea zehaztu, edota prestakuntza eta auto-enpleguaren inguruan aholkatu eta informatzen dute. Mujikak zehaztu duenez, "Lanbiden, enplegua eskatu eta kudeatzen diren enplegu eskaintzetan parte hartzeko aukera dago". Baina horretarako, lehendabizi, izena eman behar da bertan.

Usurbilgo Enplegu Bulegora bertaritzen direnek prestakuntzari buruzko informazioa eta orientazioa eskatzen badute ere, "gehien bat lan eskaintzen berri izatea nahi dute", baieztatu du Mujikak.



JOSUNE MUJIKAK, ENPLEGU BULEGOKO TEKNIKARIA.

Curriculumak edota aurkezpen eskutitzak egiten lagundu izan ohi dute, bezeroek hala eskatuta. Askok, beste leku askotan bezala, informazio gabezia baino, orientazioa behar izaten dute. "Beharrak identifikatzeko arazok dituzte, askotan, lan beharrak", zehaztu du Enplegu Bulegoko arduradunak.

Nondik hasi?

Usurbilgo Enplegu Bulegoa:
Joxe Martin Sagardia enparantza,
Usurbilgo Udala
Tf: 943 37 19 51.

INEM bulegoa:
Donostia Etorbidea 5,
20160 Lasarte-Oria
Tf: 943 37 29 40.

Langabezia Usurbilen

	2001	2002	2003	2004	2005
MARTXOA	151	163	140	165	149
EKAINA	113	135	141	150	169
IRAILA	127	134	142	144	163
ABENDUA	142	155	169	165	175

Langabetuaren profila

Adina	25-49 urte
Sexua	Emakumea
Lan alorra	Zerbitzuetan lan egiten dutenak
Ikasketak	Bigarren Hezkuntzako lehen etapa gainditu dutenak
Lan munduan	Gaitu gabeko langileak

Iturria: INEM.

Enplegu Bulegora joan baino lehen kontuan hartzeko moduko gomendioak

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bi dira enplegu alorrean lanean diharduten zerbitzu publikoak: INEM eta Egailan. Horrelako bulegoren batean lehen hitzordua zehaztu baino lehen, kontuan hartu behar diren aholkuak dituzue hauek.

-Curriculum Vitae-a (CV) eguneratua eramatea.

-Lanean eta ikasten eskuratutako

froga agiri guztiak eramatea.

-Argi izatea, zein lanbidetan lan egin nahiko zenukeen.

-Norbere interesak, gaitasunak eta baliabideak kontuan izatea.

Hori eginez gero, enplegu bulegoko arduradunak errazago lagun zaitzake eta arreta hobea jaso ahal izango duzu argibide horiek emanda. Arreta pertsonalizatua eskaintzen dute bertan; norbere gaitasun, behar eta profilaren arabera orientazioa, laguntza eta argi-

bideak ematen dituzte. Gainera, norbere datuak datu base batean sartuko dituzte eta enpresen eskura jarri. Datu horiek hiru hilabetea behin eguneratu behar izango dituzu, bestela izen ematea eteten da. Hortik aurrera, pazientzia eta zorte ona izatea besterik ez zaizu geratzen. Eta espero duzun dei horren zain egotea.

ARITZ GORRITI

Internet, lanpostua aurkitzeko tresna lagungarria

Internet lana bilatzeko tresna nagusia bihurtu da azken urteetan, prentsari aurre hartuta. Batetik, lan munduaren alorrean diharduten erakundeek euren web orrialdeak egin dituzte. Bestetik, lana aurkitzeko beste hainbat web gune sortu dira, teknologia berriak erabilita. Lanpostu bat lanbide edota herrialdearen arabera aurkitzea, curriculumak webgune horietan uztea edota prestakuntza eta orientabiderako informazioa eskuratzeta, gune horiek eskaintzen dituzten aukeretako batzuk baino ez dira.

Helbide interesgarriak

Araba, Bizkaia, Gipuzkoan:
www.lanbide.net

Euskal Herri mailan:
www.bilalan.net

Bestelakoak:
www.inem.es
www.infojobs.net
www.infoempleo.com
www.trabajar.com



WWW.LANBIDE.NET WEBGUNEAREN
ATARIA DUZUE HAUXE.

EUSKAL OKELA
KARRE DE VINO DE CALIDAD DEL PAIS VASCO
h k k l , 4
T H 43 3 57 42

UT ZE ITZU
ETXEK
K NOEL TU K

Ford
Usurbil Autoak, S. C. L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa
Aitezarra kalea, 1
20170 USURBIL
Tlf: 943 36 10 79
Faxa: 943 36 62 92

M N CENILL
k r - n t u r i
t l l u k
r z t l z - l u k
n t u r - l u k r h r
Aristitxo, 8-5.a 20170 USURBIL
MOBILA: 629 46 09 66

LAUKOTE
OKINDEGIA
KAFETEGIA
Puntapax kalea, 16 behe
(Artzabal) 943 36 09 80

DJ LARRA
-ezkontzak
-festak...
Tel. 615 713 204

Martxoan, Sutegiko auditorioan, film laburren proiektzioa eta antzerki saioa

Iker Galarza eta Joseba Usabiaga dira "Erreleboa" antzezlanaren aktoreak

NOAU!k film laburren emanaldia eta antzerki saioa antolatu ditu martxorako. Martxoaren 9an osteguna, arratsaldeko 20:00etan, Euskal Herrian egindako film laburrak ikusteko aukera izango dugu. Martxoaren 17an, ostirala, "Erreleboa" antzerki saioa iritsiko da Sutegira.

Aurtengoan ere, Euskara Elkarteen Topaguneak Film Laburren Zirkuitua antolatu du. NOAU!ri esker, Usurbila ere iritsiko da film laburren proiektzioa. Hori martxoaren 9an izango da, iluntzeko 20:00etan.

Antzezlan, tragikomedia

Antzerki saioari dagokionez, XXIII. Euskal Antzerki Topaketan lehenengo saria irabazi duen obrak gozatzeko aukera izango dugu Sutegin. Txalo Teatroa konpainiak Ernesto Caballeroren "El Retén" obra euskarara egokitu du, "Erreleboa" izenburuarekin. Obrak Caballeroren testua errespetatu du, baina baditu zenbait berezitasun. Izan ere, "El Retén"eko protagonistak Andaluziako eta Aragoako bi gazte dira, eta "Erreleboa" ikuskizunean biak euskaldunak dira: bata Amezketakoa eta



GOENKALERI ESKER EZAGUN EGIN DIRA IKER GALARZA ETA JOSEBA USABIAGA AKTOREAK.

bestea Ordiziakoa, Agustin eta Joxe. Antzezleak Iker Galarza eta Joseba Usabiaga izango dira, Begoña Bilbaoren zuzendaritzapean. Martxoaren 17an ikusiko dugun antzezlanak soldaduzkan giro tutako tragikomedia da, 75 minutuko iraupena duena.

Bi euskaldun soldaduzkan

Istorioa Algezirasen kokatzen da, 1985eko neguan. Bi euskaldun elkar

topo egingo dute soldaduzkan, bata amaitzekotan eta bestea hasi berritan. Gau bateko tartean esperientziak konpartitzeko, bizipenak eta bizi-minak kontatzeko aukera izango dute. Baita adiskidetasunean, inbidian, borrokan eta leialtasunean erortzeko ere, esperientzia eta inozentzia kontrajartzen diren momentu horretan.

NEREA KORTA _____

IGELTSE ITZ
t
INTU

943 376 424 • 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Knk l
- L. ntz r
Gz n zk n rr p
ll ur ntz k
- Fix r k h r
tuzun k

Zubiaurrenea, 3 33 17 7

I n t n n - z r m u n l k

BEMARAKOA
BEMINIK MAIOR...

Telf: 943 36 61 21 Alperroburu, 1

Kalkos kopisteria
FOTOKOPIAK
zuri-beltza • koloretan

BANDERA SALMENTA

PINTORE KALEA 7 • LASARTE-ORIA
943 376 424 • 943 376 155 (FAX) kalkos@copisteriakalkos.com

Kima
MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa

Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA TEL. 36 61 97

Itzuli oso bat partidarik galdu gabe

Usurbil Futbol Taldeko 1. Errejonial mailako taldeak 15 partida daramatza galdu gabe. 2005eko urriaren 23ko asteburuan galdu zuten azken neurketa. Lehenengo itzuliko norgehiagoka hartan Andoaingo Euskalduna taldeak 1-0 irabazi zien, baina orduz geroztik bederatzitik berdinketa eta sei garaipen lortu dituzte. Azken partidetan, gainera, maila bikaina ematen ari dira.

Pasa den larunbatean Zubietako belar artifizialeko zelaian Euskaldunari 1-0 irabazi ondoren, gustura zeuden herriko futbol jokalaria. Liderrari irabazteaz gain, partidarik galdu gabe itzuli oso bat egitea lortu zuten eta indarrak pare-parean izaten diren Lehen Errejonial mailan horrelako zerbait lortzea ez da txantxetako marka.

Igor Guadixek lehen zatiaren amaieran lortutako golari esker gelditu ziren hiru puntuak etxean. Partida irabazteko lan handia egin behar izan zuten usurbildarrek eta epailearen amaierako txistu-hotsa entzun orduko poza izan zen nagusi jokarlari nahiz zaletuen artean.

“Guri irabazteko gai izan ziren hiru taldeak erori dituk” zioen partida amaieran Ibon Borda kapitainak alboan Unai Lataillade eta Jokin Rezola zituela. Eta ez zuten arrazoirik falta. Orain arte jokaturako 21 partidetatik hiru neurketa galdu



DATORREN JARDUNALDIAN BEHOBIAREN KONTRA ARITUKO DIRA.

ditu herriko taldeak eta hirurak jarraian galdu zituzten lehen itzulian Gure Txokoa, Martutene eta Euskaldunaren aurka. Jokatu dituzten bigarren itzuliko azken hiru norgehiagoketan, ordea, hiru talde horiek gaingitu dituzte.

Izan ere, Usurbil FT da beraien multzoan partida gutxien galdu dituen taldea, baina baita berdinketaren errege ere. Jokaturako neurketan ia erdiak berdindu egin dituzte, 10 berdinketa hain zuzen ere, eta horregatik daude lehen bi postuetatik nahikoa urrun. Momentu honetan saiklapeneko laugarren postuan daude Euskalduna liderrarengandik 15 puntura

eta bigarren postuan dagoen Martutenek 11 puntuko alde du. Hala ere, denboraldi osoan Lasarte-Oria eta Hernanin entrenatu eta Zubietan jokatzen ari direla kontuan hartuta ez dago batere gaizki.

Asteburu honetan atsedenaldia dutez, hurrengo neurketa beraiekin berdinduta dagoen Behobia taldearen aurka jokatuko dute martxoko lehen asteburuan Irunen. Egoitz Bordak ezingo du partida hau jokatu lehen klabikula hautsi ondoren berriz ere leku berean hartu baitzuen min azken neurketan.

JOSU ARANBERRI

1. Territorial mailako taldeak liderra aurkari

Hiru eskubaloit taldek ez dute atsedetik hartuko Inauterietan eta Oiardo kiroldegian eskubaloia ikusteko aukera izango da. 1. Territorial mailako taldeak Donibane Majestik liderraren aurka jokatu du. Azken neurketa 29-26 galdu zuten Bergararen aurka. Kadete eta jubenil mailako mutilen taldeek, berriz, etxetik kanpo jokatuko dute. Kadeteek Eibarren Arrateren aurka eta jubenilek Andoaingo Leizaranen aurka. Kadete neskek, berriz, 6-46 irabazi zuten Hondarribian eta asteburu honetan atsedena izango dute.

Imanol Esnaola ondo lau t'erdian

Imanol Esnaola Aginagako pilotari gazteak kadete mailako Antiguako TeleDonosti txapelketan garaipena lortu zuen larunbatean. Lau t'erdian barruan jokatzen den txapelketa honetan 22 eta 15 hartu zuten mendean Ioritz Arrieta herna-narra. Bestalde, Kluben arteko udaberri txapelketan bi partida jokatu ziren ostiralean Aginagako pilotalekuan. Eskuz binaka nagusien mailan Santxo eta Urkiak 22-10 galdu zuten Aurrera Saiatz taldearen aurka eta paleta goman Usabiaga eta Urdanpilletak 30-18 irabazi zuten.

Futbol 7ko taldeak Itxiera torneoan

Futbol 7ko herriko lau taldeek duela gutxi hasi duten Itxiera txapelketako bigarren jardunaldia jokatu zuten joan den asteburuan. Lehenengo mailan Jalgi Kafe Antzokiak 2-0 irabazi zuen eta jokatutako bi neurketak irabazi ditu. Hirugarren mailan, berriz, Txotx Aialde-Berrik garaipena lortu zuen 1-8 emaitzarekin, Balerdi Harategiak taldeak 4-4 berdindu zuen eta Olarrondo jatetxea izan zen galdu zuen bakarra, 1-3 hain zuzen ere. Talde hauek guztiek jardunaldi berri bat izango dute asteburu honetan.

Aholkua !!

Suterik ez etxean ke-detektagailuei esker

Txikiak dira, merkeak, instalazio erraz eta mantenu gutxikoak eta pilekin funtzionatzen dute. Herrialde batzuetan derrigorrezkoak izaki, aparatu hauek keak etxeetan eragiten dituen ezbeharren erdiak aurreikustzen dituzte.

Aukeratu aurretik kontuan izan beharrekoa

- Egokiena, 40 metro karratu bakoitzean ke-detektagailu bat jartzea. Lehendabizikoa etxeko sarreran edo gelen distribuzio-gunean ipini behar da. Etxeak solairu bat baino gehiago baditu, horietako bakoitzean bat gutxienez instalatu behar da.

Kokapenik egokiena

- Sukaldean, alarma faltsurik gerta ez dadin, detektagailu termobelozimetrokoak instalatu ohi dira: hauek kerik haute-maten ez badute ere, tenperatura-aldaketa bortitzen berri ematen dute.

Toki desegokiak

- Etxean erretzen baduzue, ke-kontzentrazio handia biltzen ez den tokiren batean kokatu beharko da aparatura, alarma faltsurik egin ez dezan.

- Ke-detektagailuak ez ipini bainugeletan, dutxetan edo ur-lurruna edo bestelako keak aise biltzen diren geletan.

- Ez instalatu aire-korrontearen norabidea aldaraz dezaketene eta tenperatura-aldaketa biziak eragin ditzaketene berogai-



lu, aire-egokitzaile, leiho zein eguraste-hodien gainean, azpian edo gertu.

Mantenua

- Begira ezazu aldian behin detektagailua ondo dabilela. Aski da, horretarako, aparatua erdialdea sakatzea, alarmak sute-kasuan bezala jo dezan.

Eguneko goardiako farmaziak

Otsailak 23, osteguna
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Otsailak 24, ostirala
De Miguel, Nagusia 32 Lasarte

Otsailak 25, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 26, igandea
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Otsailak 27, astelehena
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Otsailak 28, asteartea
Gil, Nagusia 2 Lasarte

Martxoak 1, asteazkena
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Martxoak 2, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Martxoak 3, ostirala
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Martxoak 4, larunbata
Oa Kontzeju Zaharra 11 Usurbil
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Martxoak 5, igandea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Aizpuru Farmazia, Latsunbeberri 11,
Hernani. 943 336 077 (Urte osoan).

2006ko egutegi osoa: www.noaua.com

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN
Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T) /
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T) /
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN
Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45 /
15:15(T) / 21:35(T)

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN
Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T) / 15:30(T) /
21:35 (T)

Donostia-Zubieta
(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T) / 15:00(T) /
21:00 (T)

* Eskola egunetan.

T Autobus aldaketa beharrezkoa da. 943 361740.

Autobus ordutegia
Donostia-Zarautz

Donostia	Urbil	Usurbil	Zarautz
07.40		08.05	08.25
08.00		08.25**	
08.00	08.20	08.25	08.45
08.40	09.05	09.25	
09.00	09.20	09.30	
09.00	09.20	09.25	09.45
09.40	10.05	10.25	
10.00	10.20	10.25	10.45
10.40	11.05	11.25	
11.00	11.20	11.25	11.45
11.40	12.05	12.25	
12.00	12.20	12.25**	
12.00	12.20	12.25	12.45
12.40	13.05	13.25	
13.00	13.20	13.30	
13.00	13.20	13.25	13.45 #
13.40	14.05	14.25	
14.00	14.20	14.30**	
14.00	14.20	14.25	14.45
14.40		15.05	15.25
15.00	15.20	15.30	

■ Soilik larunbata gauze # Larunbatetan, Orion autobus aldaketa Aiaro

■ Larunbat lanegunetan ■ Asteburutan, jaietan **Aiaraino

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Autobus ordutegia
Zarautz-Donostia

Zarautz	Usurbil	Urbil	Donostia
06.45	07.05		07.30
06.45	07.05	07.10	07.30
07.15	07.35		08.00
07.45	08.05		08.30
07.45	08.05	08.15	08.40
08.15	08.35		09.00
08.45	09.05	09.15	09.30
	09.30	09.35	10.00*
09.45	10.05		10.30
09.45	10.05	10.15	10.40
	10.30	10.35	11.00
10.45	11.05		11.30
10.45	11.05	11.15	11.40
11.45	12.05		12.30
11.45	12.05	12.15	12.40
12.45	13.05		13.30
12.45	13.05	13.15	13.40
	13.30	13.35	13.55*
13.45	14.05		14.30
13.45	14.05	14.15	14.40

*Aiariak dator ■ Asteburutan, jaietan

■ Larunbat lanegunetan ■ Soilik larunbata gauze

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

EuskoTren ordutegia

Donostia	Usurbil	Zarautz	Zarautz	Usurbil	Donostia
05.47*	06.03*	06.20*	06.08*	06.24*	06.39*
06.17*	06.33*	06.50*	06.38*	06.54*	07.09*
06.47*	07.03*	07.20*	07.08*	07.24*	07.39*
07.17	07.33	07.50	07.38*	07.54*	08.09*
07.47	08.03	08.20	08.08	08.24	08.39
08.17*	08.33*	08.50*	08.38*	08.54*	09.09*
08.47	09.03	09.20	09.08	09.24	09.39
09.20#	-	09:47#	10.08	10.24	10.39
09.47	10.03	10.20	11.08	11.24	11.39
10.47	11.03	11.22	11.22#	-	11.47#
11.47	12.03	12.20	12.08	12.24	12.39
12.17*	12.33*	12.50*	12.38*	12.54*	13.09*
12.47	13.03	13.20	13.08	13.24	13.39
13.17*	13.33*	13.50*	13.38*	13.54*	14.09*
13.47	14.03	14.20	14.08	14.24	14.39
14.17*	14.33*	14.50*	14.38*	14.54*	15.09*
14.47	15.03	15.20	15.08	15.24	15.39
15.17*	15.33*	15.50*	15.38*	15.54*	16.09*
15.47	16.03	16.20	16.08	16.24	16.39
16.17*	16.33*	16.50*	16.38*	16.54*	17.09*
16.47	17.03	17.20	17.08	17.24	17.39
17.17*	17.33*	17.50*	17.38*	17.54*	18.09*
17.47	18.03	18.20	18.08	18.24	18.39
18.17*	18.33*	18.50*	18.38*	18.54*	19.09*
18.47	19.03	19.20	19.08	19.24	19.39
19.17*	19.33*	19.50*	19.38*	19.54*	20.09*
19.47	20.03	20.20	20.08	20.24	20.39
20.17*	-	20.48#	21.08	21.24	21.39
20.47	21.03	21.20	22.07#	-	22.32#
21.47	22.03	22.20	22.22#	22.54	23.09

* Astegunetan bakarrik

Ez da Usurbilen geratzen

Harremnatarako: 902 54 32 10 / www.euskotren.es

Agenda !!

ETXEBIZITZA

- Gazte euskaldun bat naiz eta Usurbilen edo inguruetan, bakarrik edo konpartituta etxe bat alokatuko nuke. 943361229 Joseba.
- Usurbilgo bikote gazte batek pisua alokatu nahi-ko luke Usurbilen. 679 185 102.
- Usurbilen pisua bat alokairuan hartuko nuke. Tel: 630 032 779.
- Usurbilen edo inguruetan 3 haur eta 2 helduentzat alokairuan hartzeko pisu bat bilatzen dut preziaz. 620 646 769.
- Usurbilen alokairuan etxe bat behar dugu. Ordainketa bermatua. 943365737.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Garaje ixia saltzen dut Nagusia Kalea 4an. Interesatuak deitu telefono honetara: 656712340
- Garaje itxi bat alokatzen da Etxealdian, 22m2, kotxea erraz sartzen da, 76 euro. Interesatuak deitu arratsalde 943373185 telefonora.
- Lokal bat daukagu alokairuan 70m2koa. Interesatuak deitu 943 372 034.
- Aparkalekuak salgai Bizkarra 1-8 etxe taldean, Kale Nagusia 3. 607 905 859 (Imanol).
- Honda Dominator 650 cc motorra egoera osoan. 667 172 010 (Jon).
- Garaje itxi bat alokatzen da Kale Nagusian. Interesatuak: 943 361 235.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Emakume bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, umeak eta helduak zaintzeko eta antzeko lanetarako. Interesatuak deitu 630274906 telefonora.
- Bakeiran snow-ko klaseak eta ikastaroak ematen dira. Alojamedua ere eskaintzen da. Informazio gehiago: 652 651 906 / www.upriding.com webgunea.
- LH eta DBHko klaseak ematen ditut euskaraz zein erdaraz. Majisteritza ikasia eta esperientziaduna klase partikularrek ematen. 635209193.
- Bi neska lizentziatu eta esperientziadunak LH eta DBHko haur eta gazteei klase partikularrek ematen ditugu euskaraz zein gaztelaraz. Interesatuak: 653711574.
- Emakume bat eskeintzen da etxeko-lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edota antzeko lanetarako. 620 646 769.
- Kamarera euskaldun bat eskaintzen da astelehe-

- netik ostiralera lan egiteko. 667 694 469.
- Emakume bat eskaintzen da astelehenetik ostiralera, pertsona helduak edo ezinduek zaintzeko. Telefonoa: 626 641 155 Mariaje.
- Taberna batean egingo nuke lan edo antzeko zer-baitetan. 652 757 495.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Oporretako, ospakizunetako, edozein motatako bideoak montatzen dituen profesionala eskaintzen da. 943555835/ 617242660.

Lan-eskaintzak

- Antxeta tabernan bi langile behar ditugu: kamarera bat eta sukaldean aritzeko langile bat. 943 37 03 44.
- Arraindegri batean goizez lan egiteko pertsona bat behar da. 616 735 047.
- Etxeko lanak egiteko eta haur bat zaintzeko egun osoz, pertsona baten bila gabilza. 645403905.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Gazteentzat lokal bat alokairuan hartuko genuke. Gure telefono zenbakia: 667 694 049.
- Urtarrilaren 21ean iluntzean 9 urteko mutiko baten bizikleta txuri-gorria galdu genuen frontoi atzean. Aurkitu duenak deitu 943360551.
- Pasa den astean haur bufanda bat galdu da. Urdin iluna eta bi marra txuri ditu. Ikastolatik plazarako bidean galdu da. Bilatu duenak 943370420 telefonora deitu. Mila esker.
- Graduutako betaurrekoak galdu ditut, Bordaberri kale inguruan. Aurkitu badituzu NOAUA!ra ekarri mesedez.
- Fatxada margotzeko pintura naranja salgai daukat, kalitate onekoa eta prezio onean. 635 209 235.
- Bustner Fun modeloko 5 pertsonentzako karabana salgai. Komun kimiko bat eta sukaldea. 1.200km. Prezioa 6.000 e. 629 680 214.
- Umea eramateko mendiko motxila bat erosiko nuke. Tlfnoa: 605 72 48 24
- Emuak salgai. Bi emu, arra eta emea modu onean saltzen dira. 657 633 461.
- Urtarrilaren 25ean txamarra bat galdu zen frontoi atzeko jolas-lekuan. Urdin ilun kolorekoa eta 10 urteko mutil batena. Aurkitu baduzu NOAUA!ra ekarri.
- Pago egur txikitua eta lehorra salgai. Etxera eramaten da. Tf. 615 755 762.

Otsailak 24, ostirala

- Udarregikoak Inauterietan. 10:00etan Agerialdetik kalejira. 11:30ean, kiroldegian, ikasleen emanaldia.
- "Errioko jarduerak eta bertako hiztegia" liburuaren aurkezpene Aginagako apaiztxearen aretoan. 19:00etan. Ondoren, afaria soziedadean. Prezioa: 15 euro. Aldez aurretik izena eman Eiza dendan (otsailaren 22a baino lehen).
- Euskal presoak Euskal Herriratu eta beren estatus politikoa aitortzeko elkarretaratzea Etxerat!ek deituta. 20:00etan frontoi atzean.

Otsailak 25, larunbata

Inauteri Jaia. 11:00etan umeentzat jokoak frontoian. 18:30ean, koadrilen elkartzea frontoian, segidan, trikitilari-ekin kalejira. 21:00etan sagardotegia. Izena emateko, ohiko tokietan, otsailaren 18a baino lehen.

Martxoak 2, osteguna

Euskal paisaien historia eta bilakari buruzko hitzaldia.

Jakoba Errekondo izango da hizlaria. Sutegiko auditorioan, 19:30ean. Antolatzailea: Nafartarrak.



Udalekuetarako deialdia

Ikastolen Elkartek aisialdiko begirale eta zuzendariak behar ditu uztailaren egingo diren euskal, ingeles eta frantses udalekuetarako. Beharrezkoa: euskalduna izatea, aisialdian esperientzia izatea eta ingelese edo frantsesa menderatzea (udaleku horien kasuan). Izena emateko: E-posta: aalberdi@bie.ikastola.net Telefonoa: 94 4354340 (Amaia)

HILDAKOAK

Jesus Artetxe Artetxe

Otsailaren 18an hil zen 64 urterekin. Txikiardi.

Txerrimunik ordainetan !!

Zorionak Imanol!
Otsailaren 23an urtebete egingo du Imanol Uribek.

Zorionak etxeko guztien partez!



Urte askotarako Tere!
Ea Lazkaotik Usurbil aldera etortzen haizen ta hire eguna ospatzeko aukera dinagun. Egund bat pasa otsailaren 24ean.



Etxean euskara entzunda, hitz egingo du kalean

Munduan herrialde asko daude hizkuntza bat baino gehiagotan funtzionatzen dutenak. Hizkuntza bat baino gehiago jakiteak onura gehiago dakar arazoak baino. Hizkuntza bat ondo jakiteko, ordea, erabili egin behar da, eta horretarako, non erabilia eduki behar da.



FAMILIA ETA EGUNEROKO HARREMAN GIROAK ZER IKUSIA DU HAURAREN HIZKUNTZA GARAPENEAN.

Buruntzaldeko 6 herrietan proiektua jarri dute mar-txan, hizkuntza transmisio-an familiak duen garrantzia azpimarratu nahian. Zein hizkuntzatan hitz egiten duten gurasoek seme-alabe-kin, euren artean, horrek zein eragin daukan umeak hizkuntza ikasteko... Nola jokatu bi gurasoek euskaraz ez badakite...

Umea hizketan hasten denetik eta sei bat urte betetzen dituen arteko garaian hizkuntzaren adina deitzen diote adituek. Umeak hitzak ikasi eta horiekin jolasean aritzeko irrikaz egoten da. Garai horretan guztiz garrantzizkoa da umeari laguntzea, ikasten duena egokia eta osatua izan dadin.

Gurea bezalako herri elebidunetan, bi hizkuntza dituzten herrietan alegia, hizkuntzak ikasteko bidea ondo egiten

bada, etekina umeak berak aterako dio. Etekina, bere garapenean eta baita beste hizkuntza batzuk ikasteko erraztasunean ere.

Gurasoak hauraren eredu

Hauraren heziketan garrantzi izugarria dauka familiak. Egunekeo zati handi bat familian pasatzen du haurrak eta bertatik eredu asko jasotzen ditu: jokabidezkoak, kulturalak... eta

(AURREKO ORRIALDETIK DATOR)

baita hizkuntza bera ere. Alde horretatik, familia da euskara ikasteko modurik errazena, merkeena eta eraginkorrena. Euskara irakastearekin batera, euskara erabiltzeko ohitura edo erabilerarekiko ardura ere transmititzen dira; kultura, umorea, pentsaera, bizitza ikusteko modua...

Familian euskara ikasten ez bada, eskolak bete behar du lan hori, baina, eskola ez da nahikoa hizkuntza baten transmisioa ziurtatzeko. Kasu horietan gure inguruan sortzen dugun giroak eragin handia dauka. Nola hitz egiten dugu senide, haurtzaindegi, zaintzaile, pediatrarekin? Eta lagunartean?

Zer egin lezake bakoitzak?

Helburu nagusia da umearen inguruan ahalik eta euskal girorik handiena sortzea. Eskolaz kanpoko jardueretan, lagunekin eta ingurukoekin izango dituen harremanetan, telebista, pelikula, antzerki eta bestelakoak ikustean...

Oro har, hizkuntza egoera hobetzeko derrigorrezkoa da askoren lana bideratzea eta horien artean, familia da garrantzi handiena daukana. Familia bakoitzean errealitate ezberdina daukagu ordea. Zer egin liteke kasu bakoitzean?

Guraso euskaldunek zer?

Umeak konturatu behar du euskara baliozko tresna dela. Horretarako gila

tza da bikotekideen artean euskaraz hitz egitea. Euskaraz egitea bikotekidearekin, eta ahal bada aiton-amonekin, zaintzailearekin, gainerako guraso euskaldunekin, eta bereziki gutxiago dakitenei euskaraz aritzeko aukera ematea.

Etxeko euskara erabili harreman arruntetan. Ez pentsatu zeure euskara kaxkarragoa denik eta euskara batua hobe. Hor azpian bada euskara batuaren eta etxeko euskararen arteko borrokatxo bat. Baina euskara batua eremu formaletan erabiltzeko asmatu da (telebistan, irratan, irakaskuntzan, administrazioan eta abar).

EUSKARAREN EGOERA

“Euskara eta gaztelaniaren egoera ez da berdina. Haurra elebiduna izan dadin, ahalegin handiagoa egin beharko dugu euskara erabiltzeko esparru gehiago izan ditzan”

Bikotekide mistoetan nola?

Hizkuntza ezberdinen jabe diren bikote mistoak oso arruntak dira mundu osoan. Egindako hainbat ikerketak dienez, guraso bakoitzak hizkuntza bat hitz egin behar die seme-alabei, eta seme-alabek oso normal

onartzen dute printzipio hori.

Horrela bada, guraso euskaldunak euskaraz hitz egin seme-alabekin. Guraso erdaldunek hitz egin erdaraz lasai, baina saiatu euskaraz ikasten, gutxienez familiako hartu-emanetan elkarriketei jarraitzeko, eta senitarte-koek hizkuntza aldatzeko beharrik izan ez dezaten. Egokia litzateke familiako beste kideekin batera aisialdiko ekintzetan edo eskolako bileretan euskaraz parte hartu ahal izatea.

Euskara eta gaztelaniaren egoera ez da berdina. Haurra elebiduna izan dadin, ahalegin handiagoa egin beharko dugu euskara erabiltzeko esparru gehiago izan ditzan.

Gurasoetan inork euskaraz ez badaki?

Saiatu umeari inguru ahalik eta euskaldunena eskaintzen: haurtzaindegi, zaintzaile, eskola eta abar. Ez pentsatu eskolan bakarrik ikasiko dutenik. Euskaraz ikastea beharrezkoa da baina ez da nahikoa. Ahal duzuen neurrian, motibatu itzazue seme-alabak euskara ikasi eta erabiltzera.

Animatu zaitezte zeuek euskara ikastera. Titulu beharrik ez dago, nahikoa da umearekin hitz batzuk egitera iristea, abestiak kantatzeko gai izatea...

BURUNTZALDEKO UDAL EUSKARAKO BATZORDEEK
SUSTATURIKO PUBLIERREPORTAJEA

Proiektu pilotua Buruntzaldean

Familia bidezko hizkuntza transmisioak duen garrantziaz jabetuta, Buruntzaldeko sei udalak gurasoekin lanean hasi dira, proiektu pilotu bezala. Proiektu pilotua denez, herri bakoitzeko ikastetxe batekin ari dira lanean, eta baita herriko osasun etxeekin ere.

Osasun etxeak. Osasun etxeetan

haurdun dauden gurasoei hitzaldiak ematen ari dira eta materiala ere prestatuta daukate beraiei emateko. Hitzaldi horiek haurdunaldiko ikastaroen barruan sartu dituzte eta herri bakoitzean euskaraz eta erdaraz eman dituzte.

Ikastetxeak. Ikastetxeetan 2 eta 3 urteko haurren gurasoekin ari dira

lanean. Hitzaldiak emateaz gain, liburuxka batzuk ere prestatu dituzte gurasoei gogoetarako gonbitea eginez eta pista batzuk emanez.

Proiektu honetan lanean ari dira Buruntzaldeko Udalak, ikastetxeak, Osakidetza, Jaurilaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetza (HPS), HABE eta Soziolinguistika klusterrera.

An illustration of two hands, palms facing each other, with fingers spread. The fingers are colored in a repeating pattern of blue, green, and purple. The palms are a light pinkish-red color. The hands are set against a white background within a light purple rectangular border.

Euskara ere eman

Zeuk duzu giltza

Etxean zer ikusi,
hura ikasi



Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria,
Urnieta eta Usurbilgo Udalak.

Euskarako Batzordeak